



2009KO URTARRILAREN 15EKO
EZ-OHIKO OSOKO BILKURA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta bederatziko urtarrilaren hamabostean, iluntzeko zazpitan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Patxi Albisu Estensoro Alkatearen lehendakaritzapean, ez-ohiko batzarraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Amagoia Naldaiz Mingo, Xanet Barreras Jauregi, M^a Lourdes Garmendia Guerra, Xabier Arrasate Aierbe, Inazio Barandiaran Aldasoro, Juan Manuel Serna Portugal, Ricardo Crespo Rubio, Iñaki Saldaña Herrero eta Javier Moreno González de Lara.

Felix Urkola Iriarte eta Ángel Hernández Marzal zinegotziak ez dira bertaratu.

Aktan adieraziko da Inazio Estensoro Eskisabel zinegotzia bertaratzen deneko unea.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, eguneko gai zerrendak dauden gaiak aztertzeari ekiten zaio.

I.- ARERIA ERAIKINA ERAIKUNTZAREN 21. ETA LIKIDAZIOA DEN 22. OBRA EGIAZTAGIRIAK.-

Areria eraikin sozio-kulturalaren eraikuntza lanen obra zuzendaritza daraman Jose Manuel Elizegi Sarobe arkitektoak lanen hogeita batgarren eta likidazioa den hogeita bigarren obra egiaztagiria luzatu ditu. Hogeita batgarren (21.) obra egiaztagiriaren zenbatekoa EHUN ETA BERROGEITA HEMEZORTZI MILA ETA HIRUROGEITA HAMAIIKA EURO eta HIRUROGEITA BAT ZENTIMOtakoa (158.071,61 €) da eta likidazioa den hogeita bigarren (22.) obra egiaztagiriarena berriz EHUN ETA ZAZPI MILA ZORRZIEHUN ETA HMAZAZPI EURO eta HMAZAZPI ZENTIMOtakoa (107.817,17 €) da. Lan hauek ARERIA Aldi Baterako Enpresa Elkartea ari da burutzen.

Udal teknikariak zertifikazio hauek aztertu eta bere oniritzia eman die.

Honen aurrean, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, Areria eraikin sozio-kulturalaren eraikuntza lanen hogeita batgarren eta likidazioa den hogeita bigarren obra egiaztagiria onartzea erabakitzen du.

II.- ESTALIGABEKO IGERILEKUAK ERAIKITZEKO JABETZA KENTZE ESPEDIENTEA HAS-TEA.-

Lazkaoko Planeamenduko Arau Subsidiarioen Berrikusketa, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Diputatuen Kontseiluak 2007ko ekainaren 12an hartutako akordio bidez behin betikoz onartuak izan zen, eta onarpen akordio honetan ezarritako baldintza betez Laz-

...///...

kaoko Planeamenduko Arau Subsidiarioen Testu Bategina idatzi zen eta hau 2008ko abenduaren 23ko Diputatuen Kontseiluak hartutako akordio bidez onartua izan da.

Aipatu dokumentuak jasotzen dituen eremuen artean 9 zenbakidun Hirigintza Jarduketa Area barneratzen da, "ERDIGUNE" izenarekin izendatzen dena, eta honen erizpide eta helburuen artean, jabetza kentze espediente honi dagokionean, zera esaten da "... Kiroldegia handitzea ahalbidetzea ekipamendu-gune bat eraikita". Horretarako 2 Egi-karitze Unitatea izenarekin izendatzen den gunea mugatzen da eta honen zehaztapenen artean honako hau jasotzen da: " Modu orientagarrian, 5.936 m² inguruko azalerako 9.2. E.U. Egikaritze Unitatea mugatzen da, eta azalera honentzat, desjabetzeko jardun-sistema proposatzen da".

Lazkaoko Udalaren asmoa, Estatuak, Azaroaren 28ko 9/2008 Errege Dekretu-legearen bitartez, ekonomia eta enpleguaren dinamizaziorako sortu duen Toki Inbertsio-rako Estatuaren Fondoak eskeintzen dion aukeraz baliatuta gunee horretan estali gabeko igerilekuak eraikitzea da.

Hau horrela, garatu nahi den gunean ukitutako ondasun eta eskubideen zerrenda jasotzen duen dokumentua osatu da.

Jendartetik hitza eskatu eta alkateak eman ondoren, Joseba Hernandezek esaten du beraien ustez desjabetza azkeneko urratsa izan behar litzatekela eta ahal bada behintzat lurrak akordio batetara iritsi ondoren eskuratu behar direla.

Alkateak erantzuten dio asmoa hori dela.

Guzti honen aurrean, Apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 4.1 d) artikulua eta 1954ko abenduaren 16ko Derrigorrezko Jabetza Kentze Legearen 10etik 21erako artikuluen aurrean; halaber Idazkari-Kontuhartzailearen txostenaren aurrean eta Hirigintza, Obra eta Zerbitzuetako Batzordearen proposamenez, Osoko Bilkurak, bertaratutako guztien aldeko botuekin, honako akordio hauek hartzen ditu:

1.- Okupatzea beharrezkoak izan eta akordio hauen amaieran zerrendatzen diren ondasun eta eskubideen zerrenda onartzea.

2.- Lursail okupazio ondorioetarako eta Lurzoruaren Legearen Testu Bategina onartzen duen ekainaren 29ko 2/2008 Errege Dekretu Legegileak 29. artikuluan dioenaren arabera eta halaber Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzorua eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 176. artikulua dioenaren arabera, Lazkaoko Planeamenduko AA.SS.en behin betiko onarpenarekin herri erabilera aitorpena egina dagoela jotzea eta beraz berauek okupatzekoa ere bai.

3.- Aipatu Derrigorrezko Jabetza Kentze Legearen 18. artikuluan adierazi moduan akordio hau argitaratzea espedientean interesatu moduan azaltzen diren guztiei banan banan jakinarazpena eginez.

UKITUTAKO JABE ETA LURSAILEN ZERRENDIA

...///...



...///...

Lursaila	Katastro-ko Erref.	Jabea	Azalera m ²	Helbidea
1	2109097	M ^a Jesus eta Javier Vitoria Iturrioz eta Jon Muruamendiaraz Vitoria	158,00	M ^a Jesús: Barreiatua, 3 – 02 Bitoria Etxea. Lazkao Javier: Getaria, 14 – 02 Esk. Donostia Jon: Elosegi, 24 - 01 A. Lazkao
2	2109097	M ^a Jesús Vitoria Iturrioz eta Jon Goñi Vitoria	8,00	M ^a Jesus: Barreiatua, 3 – 02 Bitoria Etxea. Lazkao Jon: Barreiatua, 3 – 01 Bitoria Etxea. Lazkao
3	2409098	Jose Angel Olano Gaztañaga	1.689,00	Barreiatua, 4 – Komen- dradi Baserria. Lazkao
4.1	2409099	Joaquín M ^a eta M ^a Dolores Aguirre Garín	2.556,00	Joaquín: Oriamendi, 43 – 04 C. Beasain M ^a Dolores: Larrasolo, 15 – 06 B. Barakaldo
4.2	R-02-100	Joaquín M ^a eta M ^a Dolores Aguirre Garín	305,00	Joaquín: Oriamendi, 43 – 04 c. Beasain M ^a Dolores: Larrasolo, 15 – 06 B. Barakaldo
5	2424006 2409098	Lazkaoko Udala	1.440,00	Euskadi Enparantza, 1. Lazkao

III.- ESTALIGABEKO IGERILEKUAK ERAIKITZEKO KONTRATAZIO ESPEDIENTEA.-

Alkateak jakinarazten du azaroaren 28ko 9/2008 Errege Dekretu Legearen bidez sortutako Estatuaren Toki Inbertsiorako Fondora Lazkaoko Udalak aurkeztutako "Lazkaon estali gabeko igerilekuen eraikuntza" proiektua onartua izan dela 2009ko urtarrilaren 14ko Lurralde Lankidetzako Estatu Idazkaritzaren Ebazpen bidez. Eskaria egin deneko proiektu honen aurrekontua, BEZ barne, BEDERATZIEHUN ETA HEEMRETZI MILA HIRUREHUN ETA BERROGEITA SEI EURO eta BERROGEI ZENTIMOKoa (919.346,40 €) da.

Esaten du baita ere burutze proiektua idazteko agindua eman zaiola Joxemiel Barandiaran Kiroldegiaren birmoldaketa aztertzen ari den LKS enpresari.

Une honetan Inazio Estensoro Eskisabel zinegotzia bertaratzen da.

Estatuaren Toki Inbertsiorako Fondoa arautzen duen azaroaren 28ko 9/2008 Errege Dekretu Legeak xedatzen du Errege Dekretu Lege honen arabera finantzatutako obren kontratazioak presazko izaera izango dutela eta beste hainbat xehetasun ere ezar-
tzen ditu kontratazio espedientean eta bere esleipenari jarraitu beharrekoak.

Hau horrela, azaroaren 28ko 9/2008 Errege Dekretu Legeak obren kontrataziorako ezarritako xedapen hauek jasoz, lanak presazko lehiaketa ireki bidez esleitzeko kontratazio espedientea prestatu da eta kontratazio espedientea Osoko Bilkura honen aurrera ekar-
tzen da, honek onar dezan.

...///...

...///...

Lizitazio deialdia teknikariek burutze proiektua idaztetik amaitu eta udalak onarpena ematen dionean egingo da.

Osoko Bilkurak, gaia aztertu ondoren, eta bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, "Lazkaon estali gabeko igerilekuen eraikuntza" proiektuaren lanak prezazko lehiaketa ireki bidez esleitzeko kontratazio espedientea onartzea erabakitzen du.

IV.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zazpiak eta hogeita bost direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

